

DIRU-ITURRIAK

Gure helburua gutxinaka gutxinaka mundua aldatzea da, berrikuntza iraultzaile honen bidez, gaur egungo jesarlekuak iraganean utziz. Gaur egun luxuzko produktua badirudi ere, espero dugu etorkizun hurbilean kaleak, eskolak, tabernak eta beste zenbait toki gure produktuez beteta ikustea. Gure produktua goi mailako teknologiaz baliatzen da; horregatik, piezak eta ekoizpen-prozesua ez dira oso merkeak izango, eta, beraz, ezingo ditugu oso prezio merkeak ezarri.



Nahiz eta produktuak garesti samarrak izan, bezeroak erosteko prest egongo dira, gure produktuak eskaintzen dien zerbitzuaren beste produkturik ez dagoelako. Baina, bezero horietaz aparte, gure bezero nagusiak enpresa, sozietate edo elkarte handiak izango direnez, ez dituzte arazorik izango hauek eskuratu ahal izateko.

Kontuan izanda gure produktuen ekoizpen-kostua 410€ dela, salmenta-prezinoa, hau baina handiago izan behar da, gastuak ordaindu ahal izateko eta irabaziak lortzeko. Horregatik banku bakoitzaren prezioa 650€ eta 700€ artean egongo dela erabaki dugu.